**2017/2018 Denboraldia**

# 16 ZK.DUN ZIRKULARRA

## ARETO FUTBOLEKO GAZTE EUSKAL KOPA

Oraingo denboraldiko Lehiaketa Planak ezarritakoarekin bat, Euskadiko Futbol Federakundeak honako lehiaketa antolatuko du, ondorengo arauei jarraiki :

### 1.- PARTE HARTUKO DUTEN KLUBAK

Areto Futboleko Nazional Gazte mailako izen emandako lau taldeek hartuko dute parte:

ESKORIATZA K.E.
GORA BILBAO C.D.
LAUBURU IBARRA K.E.
OTXARTABE C.D.

### 2.- LEHIAKETA SISTEMA

Fase bitan egingo da: Aurrekoa eta Finala.

Aurreko Fasea (Maiatzak 6 eta 13)

Zozketaren bidez bikoteka elkartuko dira parte hartzaileak, partiden ordena eta bikoteak ezarriz.

Finala

Aurreko Faseko bi irabazleen artean ospatuko da, maiatzaren 19-20an, zozketan ateratako lehiakidearen etxean.

### 3. ZOZKETA

**JOAN**

| | |
|---|---|
| A MULTZOA | GORA BILBAO C.D. - LAUBURU IBARRA K.E. |
| B MULTZOA | OTXARTABE C.D. - ESKORIATZA K.E. |

.../...

**ETORRIA**

A MULTZOA LAUBURU IBARRA K.E. - GORA BILBAO C.D.
B MULTZOA ESKORIATZA K.E. - OTXARTABE C.D.

**FINALA**

B MULTZOA IRABAZLE - A MULTZOA IRABAZLE

**4.- JOKALARIEN ZELAIRAKETA ETA TEKNIKOAK**

Partidaren hasieran talde bakoitzak gutxienez taldeko ordezkari bat eta SEI jokalari aurkeztu beharko ditu jokalekuan partidan parte hartzeko prest. Hauen arteko lehenengo taldeko gutxienez hiru jokalari parte hartu behar dute partida osoan zehar.
Bestalde, etxeko taldeak zelaiko ordezkaria izan beharko du derrigorrez, eta behar bezala identifikatuta egon beharko da, bi arbitroen esanetara. Lehiaketa honetan parte hartzen duten talde guztiek Entrenadorea (DS) aurkeztu behar dute partida guztietan.

**5.- BERDINKETAK**

Aldi baterako berdinketak EFF-FVFko Arautegi Nagusiak ezartzen duen moduan ebatziko dira.

Fase guztietan, amaierako partiduan izan ezik, berdinketaren kasuan ez da ezarritako luzapena ospatuko eta zuzenean penalti gunetik jaurtiketak egiteari ekingo zaio.

Azkeneko partiduan berdinketarekin amaitzen denean, hamar minutuko luzapena ospatuko da, bost minutuko bi denborekin atsedenaldirik gabe, joko-eremua hautatzeko zozketa eginez. Luzapena amaitutakoan berdintasuna ebatziko ez balitz, penalti gunetik jaurtiketa batzuek egiteari ekingo litzaioke.

**6.- EPAILEAK**

Partidak zuzenduko dituzten epaileen izendapena, Areto Futboleko Epaileen Euskal Batzorde Teknikoak egingo du.

.../...

Areto Futboleko Batzordeak partiden Ordainagiriaren ordainketaz kargutuko da.

## 7.- PARTIDEN ORDUTEGIAK

Ordutegia partida jokatu baino astebete lehenago jakinaraziko diote klubek Euskadiko Futbol Federakundeari, (Fax 94-473.22.21 p.e. futbolsala@eff-fvf.eus edo www.EFF-FVF.eus web gunean ) 13. Zirkularrak ezartzen duen moduan.

## 8.- GARAIKURRA

Euskadiko Futbol Federakundearen Kopa, talde irabazlearentzat.

Hamabost dolumina talde irabazlearentzat eta irabazle ordearentzat.

## 8.- DIZIPLINA BATZORDEA

Partidak amaituta, euskal federazioari helaraziko zaizkio arbitroen aktak EFF-FVF Araudi Orokorrak ezartzen duen moduan (p.e. futbolsala@eff-fvf.eus Fax 944732221), Diziplina Batzordeak epaia plazara eta helaraz dezan, halakorik behar izanez gero.

Eta horren berri ematen diegu parte hartuko duten taldeei, lurraldeetako federazioei eta Areto Futboleko Epaileen Euskal Batzorde Teknikoari, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2018ko apirilaren 11an

ALLICA

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General